


MOZIOA

	OÑATIKO UDALA
	Erregistro Data
	2018 MAR 22
SARRERA	IRTEERA
641	

Oñatiko Udal Batzar txit agurgarri hori,

Kontuan hartuz, Oñatiko lurrean (Arantzazun) 1956an, euskara batuaren premia aldarrikatu zuela lehen aldiz Jose Luis Alvarez Enparantza (Txillardegui) Euskaltzaindiaren Batzarrean.

Kontuan hartuz duela 50 urte, 1968an, Oñatiko lurrean (Arantzazun) gure Herriarentzat funtsezko bihurtu den euskara batuaren lehen urratsak eman zirela eta horren abiapuntuan egon zela Jose Luis Alvarez Enparantzak (Txillardegui) eskainiriko oinarria (Koldo Mitxelenak aurkeztutako Euskal Idazkaritzak eginiko dokumentua).

Kontuan hartuz Enparantza senitartekoak Oñatin dauzkatela erroak, Araotzen zehazki.

Eskatzen dugu

Gure herri-memorian hori dena gera dadin eta datozen belaunaldiak horren garrantziaz harro ohar daitezen, Arantzazu inguruan dagoen Milikua eraikinean oroigarria jartzea honako azalpenak emanez:

“Hemen ikerketa lanean jardun zen Jose Luis Alvarez Enparantza (Txillardegui), idazlea, irakaslea eta politikaria, oñatiar jatorrizko senitartekoa, eta euskara batuaren aita*.”

*Ikus Bitakora kaiera. Ibon Sarasola. Erein. 2016



Oñatiko Udala:

ALKATE JAUNA:


Nik, Arantzazuko Milikua ostatuko Angelmari Milikua Guridik, joan den 2018ko martxoaren 2an, Jose Luis Alvarez Enparantzaren emaztea den Jone Forcada eta bere seme alabak diren Maddi eta Joseba, Alvarez Forcadarekin izaniko elkarrizketa ondoren, Euskara Batuaren 50. urteurrena betetzen den 2018 urte honetan, euskara batuaren aita izan den Jose Luis Alvarez Enparantza "Txillardegi"ren oroimenezko txafra edo plaka Arantzazuko Milikua ostatuko paretan, ezker aldean, jartzea onartzen dudala jakinarazten dut, Txillardegik 1978az geroztik askotan hartu baitzuen aterpe gure etxean.

Honelako testua luke bertan jarritako plakak:

“Hemen ikerketa lanean jardun zen Jose Luis Alvarez Enparantza (Txillardegi), idazlea, irakaslea eta politikaria, oñatiar jatorrizko senitartekoa, eta euskara batuaren aita.”

Besterik gabe,

Angelmari Milikua Guridi.

A handwritten signature in cursive script, appearing to read 'Angelman', written over a horizontal line.

Oñati, 2018ko martxoaren 5a.
Sinadura.